

# jarduera plana 2008

kulturaren  
euskal behatokia



kulturaren  
euskal  
kontseilua  
consejo  
vasco  
de cultura

# KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA 2008ko JARDUERA PLANA



# AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	3
1. INFORMAZIO-SISTEMA .....	4
1.1. Eragiketa estatistikoak .....	5
1.2. Azterketa estatistikoak .....	7
1.3. Metodologiaren laborategia .....	8
1.4. Nazioarteko behatokiekin sare-lana .....	9
1.5. Gailu teknologikoak.....	10
1.6. Kulturaren Euskal Plana ebaluatzeko sistema .....	10
2. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK .....	11
2.1. Komunikazioa eta hedapena .....	12
2.2. Erakundeekiko eta sektoreekiko harremanak.....	15
3. KUDEAKETAREN PLANIFIKAZIOA ETA KONTROLA .....	16



## AURKEZPENA

Orain gutxi arte, Kulturaren Euskal Behatokia aipatzean, sortua izateak berak zuen garrantzia azpimarratzen zen; abian jarri izatea bera lorpenetzat hartzen zen. Sortu zenetik igaro den urte eta erdi honetan, sortzean eman zitzaizkion funtzioak betetzeko oinarri kontzeptualak eta operatiboak finkatzea izan da Behatokiaren lan nagusia: euskal kulturaren informazio-sistema eratzea, harremanetan eta lankidetzan oinarritutako planteamendu batetik abiatuta.

Sorreran ezarritako eginkizunaren ildoan, bi jarduera-ardatz nagusi izango dituzte 2008. urterako proiektuek: batetik, informazio-sistema, horrelako erakunde baten erdigunea izan behar baitu, eta, bestetik, komunikazioa eta harremanak, lan egiteko modu garden eta lankidetzan oinarrituaren adierazgarri. Azkenik, bi atal horiek osatzeko, kudeaketa planifikatzeari eta kontrolatzeari dagokion atala dago.

Informazio-sistemaren funtsa 2008an hasiko diren eragiketa eta azterketa estatistikoak izango dira; izan ere, gutxika, informazio kontrastatua, sistematikoa, eguneratua, berria eta erreferentziazkoa partekatu nahi da eragile publiko eta pribatuekin, esperientzia eta berrikuntza uztartuz.

Komunikazioari eta harremanei esker, Behatokia gizarteratzeko aukera izango da, jardueren bidez, hedapenerako produktuen bidez, eta eragile eta onuradunekin elkartzearen, elkarrengandik ikastearen eta elkarlanean aritzeko espazioak egokitzearen bidez.

Horrek guztiak kudeaketa-tresna egokiak eskatzen ditu urteko jarduera aurrera eramateko.

Beraz, iritsi beharreko helburuak hauek dira: behatzea, jardutea, ikastea, ezagutzea, berritzea, eztabaidatzea, lankidetzan aritzea eta zabaltzea. Eta jarduera-plan honetan biltzen dira planaren zehaztasunak. Hemen esaten da zer egingo den, eta erreferentzia bat ezartzen da Behatokiak 2008 honetarako dituen xede eta konpromisoentzat.



## 1. INFORMAZIO-SISTEMA

Gaur egun, estatistika deskribatzaileak sortzea da Behatokiaren helburu nagusietako bat. Aldi berean, ezinbesteko ikusten dugu ikasteko bide berriak irekiko dituzten bestelako azterketa batzuk hastea, eta kulturaren analisisira bideratutako ikerketa-teknika berriak garatzea.

Hala, elkarren osagarri diren bi ikerketa-lerro jarriko dira martxan 2008an:

- Ø Eragiketa estatistikoak, ezaugarri hauek dituztenak, besteak beste: sistematikotasuna, erregularitasuna eta kontzeptuzko sendotasuna. Sektore bati begirakoak edo zeharkakoak izan daitezke. Sendotuz joan ahala informazio-gorputz zehatz, egoki eta alderagarri bihurtzea dute helburu.
- Ø Azterketa estatistikoak esploraziozkoak eta analitikoak dira, eta 0 estatistika gisa har ditzakegu; ikertu beharreko errealitatea analizatzen dute, sakon ezagutzeko eta gerora egin beharreko eragiketa estatistikoei bidea errazteko. Beraz, definitzeko eta tratatzeko konplexuak diren errealitate batzuetara egiten diren hurbilketak dira, eta noizbehinkako gisa planteatzen dira.

Beste proiektu batzuekin osatuko da informazio-atala: metodologiaren laborategia; hemen sartzen dira Behatokiko proiekturik berritzaileenak, etorkizuneko ikerketak bideratuko dituztenak, eta orobat beste behatoki batzuekin sare-lana, informazioaren kudeaketarako euskarri teknologikoak, eta KEParen jarraipen- eta ebaluazio-sistema.



## 1.1. ERAGIKETA ESTADISTIKOAK

### Ø ERAGIKETA SEKTORIALAK

Behatokiaren asmoa da arteei eta kultura-industriei buruzko eragiketa estatistikoak egitea. Haien sorburua 2007an egindako lan hauek dira: estatistika-zikloaren proposamena, direktorioekin egindako eragileen identifikatze, kuantifikatze eta analisisa, eta nazioartean alor honetan izandako esperientziak.

Azterketa-sail bat hasiko da horrela, urtez urte egoeraren bilakaera ikusteko aukera emango duena; izan ere, lehenbiziko aldiz, euskal kulturaren errealitatearen ikuspegi zabal bat izango da.

Eragiketak hasi aurretik, garbitu egingo dira hasierako direktorioak, aztergai den eragile bakoitzak proposaturiko definizioen arabera. Lan horren ondorioz, direktorio osatu eta eguneratuak izango dira eskura.

Behatokiak egingo du honako eragiketa sektorial hauen diseinua, jarraipena eta emaitzen analisisa:

- Ø Arteei buruzko estatistika
- Ø Kultura-industriei buruzko estatistika

#### 2008KO EMAITZAK

- § Eragiketen eta galdetegiaren diseinua
- § Emaitzak zabaltzeko berariazko produktuak



## Ø 2008KO ZEHARKAKO ERAGIKETAK

### Euskal Herriko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko eragiketa estatistikoa

Behatokiak, Eusko Ikaskuntzak eta Euskal Kultur Erakundea-EKEk bultzatu duten lehen eragiketa 2007an hasia da, eta emaitzak 2008ko bigarren seihilekoan jakingo dira. EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko lagin zabal bat hartzen duen estatistika bat da, asmo handikoa.

### Estatistika: kulturaren finantziazioa eta gastu publikoa EAEn

Lantalde bat hasiko da 2008an estatistika honen bideragarritasun operatiboa aztertzen, estatistika bera 2009an abiarazteko.

#### 2008KO EMAITZAK

- § Euskal Herriko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoari buruzko eragiketaren emaitzak zabaltzeko berariazko produktuak
- § Finantziarioari eta gastu publikoari buruzko estatistikaren bideragarritasun operatiborako proposamena



## 1.2. AZTERKETA ESTADISTIKOAK

Ikerketa-lerro honen helburua etorkizuneko eragiketa batzuetarako bidea zabaltzea da. Azterketa estatistikoek, esploraziozkoak eta neurri batean esperimentalak direnez, ez dute alde zuzenik ezarritako xede jakinik. Diseinua, lanaren jarraipena eta emaitzen azterketa egingo du Behatokiak, aurrez pentsatutako jardueren-ildoari jarraituz.

Urte honetan, bi gairen inguruan ibiliko dira horrelako ikerketak:

### Azterketa estatistikoa: euskara euskal kulturaren

Euskal kulturaren zenbat euskara sortzen eta erabiltzen den aztertuko da. Hori egingo da, zeharkako irakurketen bidez, eragiketa estatistiko sektorialetan eta Euskal Herriko kultura-ohituren eta -jardueren eragiketan ere, baina azterketa estatistiko honetan aurrerago joan nahi da.

### Azterketa estatistikoa: komunikabideak

Azterketa honetan analisi sakona egingo da, gerora egitekoa den eragiketa estatistiko sektorial baterako bidea prestatzeko. Eragiketa horrek osatuko du 2008an gainerako azpi-sistematan hasi den zikloa.

#### 2008KO EMAITZAK

- § Azterketen diseinua
- § Emaitzak zabaltzeko berariazko produktuak





### 1.3. METODOLOGIAREN LABORATEGIA

#### Hurbilketa sorkuntzaren azterketara

Beharrezkoa da sorkuntzaren azterketara hurbiltzea, etorkizunean balio-kateko fase guztien informazioa eduki ahal izateko.

Lantalde bat abiaraziko du Behatokiak, metodologia berritzailearen bidez sorkuntzaren ezagutzan bideak ireki ditzan eta kontzeptuen eta metodologiaren aldetik prestatuz joan dadin, 2009an ikertzeko.

Ikuspegi askotatik ekin dakioke horri, eta bi analisi-mota proposatzen dira hemen:

- § **Alderdi profesionaletik:** Sorkuntzaren inguruko enplegu eta lanbideak identifikatzea eta deskribatzea.
- § **Alderdi kontzeptual-metodologikotik:** Sorkuntza eta sormena aztertzearen mugak eta jomugak.

#### 2008KO EMAITZAK

- § 2009rako azterketa-proposamenak: metodologiaren diseinua eta gauzatzeko estrategia



## 1.4. NAZIOARTEKO BEHATOKIEKIN LAN EGITEKO SAREA

Parte-hartzaileen artean sinergia interesgarriak sortu ziren Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB) 2007an antolatu zituen Nazioarteko Jardunaldietan, eta hori aprobetxatu beharra dago behatokiaren sareko lana bultzatzeko. KEBk sustatu egin nahi du lankidetzaren hori, ziur baitago beste behatoki batzuen esperientzia aztertzeak, informazioa trukatzeko eta lan-estrategiak elkarrekin ebaluatzeak erraztu egingo duela bere proiektu berritzaileen garapena, bi aldetatik: aztergaiak, eta ikerketarako teknikak eta metodologiak.

Urte honetan, lan-proposamen bat egingo zaie 2007ko nazioarteko jardunaldietan parte hartu zuten behatokiei.

### 2008KO EMAITZAK

§ 2009an sarean lan egiteko proposamena eta gauzatzeko estrategia



## 1.5. INFORMAZIOA KUDEATZEKO GAILU TEKNOLOGIKOAK

Urtean zehar, informazio estatistikoa zabaltzen hasiko gara, bai orain dagoena, bai eragiketa berrien bitartez sortuko dena; horretarako, PC-Axis bidezko sistema dinamiko bat erabiliko da, eta erabiltzaileek aukera izango dute beren beharren arabera kontsultak egiteko.

Horren osagarri, behetik gora informazioa on line biltzeko aukera emango duten tresna teknologikoak aztertuko dira. Informazioa hala bilduz, kultura-ekoizleen sareko eragileek informazioa errazago jaso eta eguneratu ahal izango dute, bai eta hura pilatu eta kudeatu ere.

### 2008KO EMAITZAK

- § Interneten estatistikak kontsultatzeko gailua
- § Bottom-up gailuaren aurretiazko azterketa

## 1.6. KEP EBALUATZEKO SISTEMA

KEPren eraginaren jarraipen- eta ebaluazio-plana diseinatuko da (2007an hasi zen esplorazio-fasea).

### 2008KO EMAITZAK

- § Jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna diseinatzea.



## 2. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

Komunikazio-ekintzen helburua da Behatokiak bere jardura eta emaitzak zabaltzea eta bere tokia hartzea, dagokion jardun-eremuko erreferente bihurtzea izanik helburu. Dударik gabe, bere lana ikusarazteko gaitasuna izango du Behatokiak arrakastaren osagaietako bat.

2008an, Behatokiak handitu egingo du bere komunikazio-gaitasuna, bere eragiketen lehenengo emaitzak zabaltzen hasiko baita. Argitalpen eta zabalkunde-egintza berriok sortzeaz gain, jarraipena emango zaie aurreko urtean hasitakoei: Kultura 07 urteko txostena, Kulturkaria agerkari elektronikoa eta web gunea.

Epe eta helmen luzeko proiektu kultural baten tresna izateko pentsatua dago Behatokia, eta haren informazio-sistema eragile bizia eta parte-hartzailea izango da, aztergai duen errealitatean bertan txertatua. Horrek esan nahi du lankidetzeta eta elkarrengandik ikastea oinarri dituen harreman-modu batean jardun behar duela kulturako sektoreekin, informatzaile nagusiekin eta sortzen den informazioaren eta jakintzaren onuradunekin.

Ikuspegi horrekin, Behatokiaren aurtengo helburu lehenetako bat zera da: harremanetarako gune bat eratzea, bultzatuko diren proiektuetan sortuz doazen beharren arabera. Berariazko lantaldeak, topaketak, aurkezpenak eta gogoeta-jardunaldiak antolatuko dira horretarako.

Azkenik, informazio-eskaerei erantzun beharra gero eta handiagoa izatea espero da, Behatokia euskal kultuaren inguruko informazioaren eta ezagutzaren erreferente gisa sendotuz doan heinean.



## 2.1. KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

### Ø ARGITALPENAK

Behatokiaren argitalpenek badituzte ezaugarri bereizgarri batzuk. Edukien aukera, testuak zaintzea, lau hizkuntzatan zabaltzea eta argitalpenen diseinua, esate baterako, bere jarduteko eraren adierazgarri dira. Alde horretatik, iritzi onak jaso ditugu, eta horrek arnasa ematen digu ikasten eta hobetzen jarraitzeko. Behatokiak asmoa du irakurleekiko kanal ireki batzuk izateko, irakurleok iradokizunak eta hobekuntza-proposamenak egin ditzaten.

### KULTURA 08 urteko txostena

Urteko txostena oso garrantzitsua da urtean zeharreko argitalpenen artean, berak erakusten baitu hobekienik, jendeari begira, zer egiten duen Behatokiak. Bi parte ditu: lehenbizikoan, eztabaidetan agertu diren gaietakoren bat hautatu eta hura aztertzen da; bigarreanean, berriz, egunean jartzen da kultura-informazioa, euskal kultura-panoramaren berri nagusiak agertuz.

### KULTURKARIA buletin elektronikoa

Kulturkariaren 3., 4. eta 5. zenbakiak argitaratuko dira 2008an. Euskarri elektronikoa zabaltzen denez eta lau hilabete behin ateratzen denez, arina da eta aktualitateari lotua. Asmoa ez da kultura-agenda izatea, baizik eta komunikazio-kanal bat, kultura-eduki batzuk aukeratuko eta irakurleak orientatuko dituena. Maiatzean, uztailean eta abenduan argitaratuko da.



### Estatistiken eta azterketen bilduma

Aldizkako inkesten eta azterketa estatistikoaren emaitzak aurkeztuko dituzte argitalpenok, labur. Emaitza osoak ikusteko, Behatokiaren web gunean izango da aukera.

#### 2008KO EMAITZAK

- § Euskal Herriko kulturaren 2008ko txostena (Kultura 08) lantzea eta diseinatzea.
- § Kulturkaria agerkari elektronikoaren hurrengo hiru zenbakiak argitaratzea eta zabaltzea
- § Eragiketa eta azterketen emaitzak argitaratzea eta zabaltzea: Estatistiken eta azterketen bilduma

### Ø WEB GUNEA

Badakigu, jakin, web gunea dela gaur egun Behatokira sartzeko ate nagusia, eta lanean ari gara, etengabe, edukiak eguneratzen eta haien aurkezpena hobetzen, erabiltzaileek errazago ikuska ditzaten. Bisiten emaitzak aipagarriak izan dira 2007an, lehen urtea zela kontuan izanik.

#### 2008KO EMAITZAK

- § Etengabe eguneratzen den web orria



## Ø ZABALKUNDE-EKINTZAK

Bere jardueren berri zabaltzeko behar den bezainbeste aurkezpen, prentsaurreko eta jardunaldi egingo du Behatokiak 2008an. Arreta bereziz zainduko da Behatokiko lehen emaitzen aurkezpena.

### 2008KO EMAITZAK

- § Kultura-ohiturari buruzko eragiketaren emaitzak aurkeztea
- § Jardunaldi, sinposio eta abarretan parte hartzea



## 2.2. ERAKUNDEEKIKO ETA SEKTOREEKIKO HARREMANAK

### Ø LANTALDEAK

Urtean zehar, etengabe egingo da lan KEPeko talde operatiboekin, haiek baitira Behatokiaren eta sektoreen arteko zubi, eta, aldi berean, Behatokiaren kontsulta-batzorde. Iritziak alderatuko dira haiekin, egiten diren aurrerapenei buruz, eta eragileak proiektuan inplikatzeko direla bermatuko da.

Aldi berean, bestalde, ad hoc lantaldeak sortuko dira Behategiaren metodologia-laborategian ondutako proiekturik berritzaileenak garatzeko, hala nola sorkuntza aztertzerako bideratutakoa.

### Ø KONTSULTEI ETA INFORMAZIO-ESKAEREI ERANTZUTEA

Kontsultei eta informazio-eskaerei erantzun beharra gero eta handiagoa izango da, Behatokia bere funtzioa betetzeko doan neurrian. Neurgailu ona izango da, erabiltzaileen interesen berri jakiteko.

### 2008KO EMAITZAK

§ Aurkezpenak, jardunaldiak, topaketak, lantaldeak.





### 3. KUDEAKETAREN PLANIFIKAZIOA ETA KONTROLA

Proiektua abian jarri zenetik, ezinbestekotzat jo zen Behatokiak sortzen duen jarduera guztia kudeatzeko tresnak izatea, lana planifikatzeko, haren jarraipena egiteko eta hura kontrolatzeko, emaitzak lortzearren. Kudeaketa horren ildoak ezartzen dituzten lanabesak Memoria eta Jarduera-plana dira, eta web gunean ikus daitezke bata nahiz bestea.

#### Ø 2008ko MEMORIA

2008ko Memoria prestatzea eta argitaratzea, urte horretako proiektu eta jarduera guztiei buruzko informazioa sistematizaturik, helburuei erantzuteko.

##### 2008KO EMAITZAK

§ 2008ko Memoria

#### Ø 2009KO JARDUERA-PLANA

Urtearen bukaera aldera, 2009. urterako jarduera-plana aurkeztuko da, eta hartan egingo da urte horretan gauzatu beharreko proiektuen proposamena.

##### 2008KO EMAITZAK

§ 2009ko Jarduera-planaren proposamena